

Elkarte eta irabazteko xederik gabeko erakundeetzako dirulaguntzak, sentsibilizazioa eta kulturarteko bizikidetza sustatzeko programak edota jarduerak egiteko. 2018ko ekitaldia.

Erakundea: ADSIS

Proiektua: “#CONECTA-TE#TRANSFORMA-TE”

Kokapena: Laudio, Agurain, Guardia eta Vitoria-Gasteiz

Emandako dirulaguntza: 7.982,57 €

Proiektuaren laburpena

Proiektuak oinarritzako prestakuntzako lau zentrotan eta LHko hiru zentrotan hezkuntza prozesu bat abian jarri nahi du 15 urtetik gorako gazteekin. Hor, mundua ikuspegi kritiko eta transformatzaile batekin aztertzen den eremua sustatu nahi da, jatorrien aniztasunaren inguruan sortutako aurreiritzi eta estereotipoen inguruan gogoeta eginez eta estrategiak sortuz, kulturarteko bizikidetza aberasgarri eta transformatzaile bat lortzeko.

Pertsonen konpromisoa hartu eta lerro berean lanean jarraitzen duten pertsonekin taldeak sortzea da helburua.

Erakundea: AGLE ELKARTEA

Proiektua: “Kulturarteko sentsibilizazioa eta bizikidetza Arabako landa ikastetxeetan”

Kokapena: Laudio, Amurrio, Kanpezu, Lapuebla de Labarca, Agurain eta Lantziego

Emandako dirulaguntza: 8.000,00€

Proiektuaren laburpena

Eskola eremuan prebentzio ildoak eraikitzean oinarritzen den programa bat da, ildo horien xedea da ikastetxeetan sortzen diren kulturarteko gatazkak konpontzea, kulturarteko bizikidetza bermatzea eta sentsibilizatzea. Zeharka eta bi noranzkotan eragingo da, bai ikasleengan, bai irakasleengan. Horretarako, lantegiak egingo dira Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko ikasgeletan, eta bertan aniztasunaren aberastasuna, tolerantzia eta errespetua landuko dira, besteak beste.

Erakundea: AMAPASE

Proiektua: “Eskola bitartekaritza, kulturarteko gatazkak kudeatu eta eraldatzeko”

Kokapena: Agurain, Eltziego. .

Emandako dirulaguntza: 7.222,53 €

Proiektuaren laburpena

Proiektuaren helburua da kulturarteko bizikidetza lantzea eta hobetzea, gizarte bitartekaritza lurraldeko bi herritako ikastetxeetan gatazkak konpontzeko metodo gisa. Ikastetxe bakoitzean 5 ekintza egingo dira: 1.- Harreman positiboaren eta partaidetza tailerra erkidegoan, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko ikasleentzat; 2.- Aniztasunean bizitzeko hastapen tailerra, Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako neska-mutilentzako zeharkako ipuin antzeztuen bidez; 3.- Kulturarteko gatazken kudeaketa positiboaren inguruko prestakuntza, bitartekaritzaren bidez ikastetxeetako profesionalentzat; 4.- Gizarte eta kulturarteko bitartekaritza prozesua adingabeekin dauden kultura arteko gatazkak ebazteko eta eraldatzeko, eta 5.- Gurasoentzako bizikidetza eskola.

Erakundea: Izartxo guraso elkarte

Proiektua: “Ipuin kontalaritza tailerrak kultura berdintasunaren alde, Izarrako eskolan”

Kokapena: Izarra.

Emandako dirulaguntza: 800,00 €

Proiektuaren laburpena

Ipuin kontalarien tailerrak egitea ikastolan. Hor, kulturartekotasuna modu ludiko batean landuko da.

Erakundea: LAMUZA GURASO ELKARTEA

Proiektua: “Kulturarteko film laburrak ekoiztea”

Kokapena: Laudio.

Emandako dirulaguntza: 6.950,00€

Proiektuaren laburpena

Lehen Hezkuntzako haurrek kultura artekotasanaren inguruko ikus-entzunezko lan bat egingo dute. Film labor bat ekoizteko prozesua aztertuko da: gidoia egitea, story board, aurretiko ekoizpena, filmatzea eta muntaketa. Hirugarren urtea da jadanik ikus-entzunezko lan bat egiten dena, eta Lamuzako ikastetxeko neska-mutilekin egiten den barneko lanak kulturarteko bizikidetzaren arloko sentsibilizazio kanpaina gisa balioko du gerora.

Erakundea: VIRGEN DEL TOLOÑO GURASO ELKARTEA

Proiektua: “Bastidako HHLHIko eskola bizikidetza hobetuz, kulturarteko hurbilketa batetik”

Kokapena: Bastida.

Emandako dirulaguntza: 7.994,30€

Proiektuaren laburpena

Prestakuntza eta gogoeta kritikoko prozesu bat abian jartzea, ikastetxean jatorri etorkineko familien eta ijitoen inguruan sortzen diren zurrumurruen eragina murrizteko.

Horretarako, eskola esparruan nahiz ikastetxean bertan, espezifikotasunetara egokitutako zurrumurruen aurkako estrategia bat diseinatu eta txertatzea proposatzen da, hango bizikidetzak hobetzeko helburuarekin.

Erakundea: KOLONBIA EUSKADI ELKARTEA

Proiektua: “Ekintza eraldatzaileak, elkarbizitza sustatzeko eta etorkinen inguruko zurrumurruek bertan behera uzteko Araban”

Kokapena: Barrundia, Agurain, Laudio eta Vitoria-Gasteiz

Emandako dirulaguntza: 8.000,00 €

Proiektuaren laburpena

Ekintza multzoa da, Arabako zenbait herritan eta Gasteizen kulturarteko bizikidetzak hobetzeko. Barne hartzen dira aurreiritziak aztertzekeo tailerrak, hiru ikastetxetan, hala nola komunikazio digitala finkatzekoak eta sentsibilizazioaren inguruko ikus-entzunezko material berriak sortzekoak.

Erakundea: Salburukolore gizarte eta kultura elkarte

Proiektua: “Salburua Koloretsu”

Kokapena: Gasteiz, Salburua auzoa

Emandako dirulaguntza: 4.048,00€

Proiektuaren laburpena

Proiektu honetan zenbait proposamen eta jarduera egiten dira, Salburuko auzokoen artean harremana sustatzeko, adin eta jatorri guztietako pertsonen artean esperientziak truka daitezen, kultura aberastasuna eta emakumeek kulturetan duten eginkizuna nabarmenduz.

Erakundea: ASVE ELKARTEA

Proiektua: “Loturak indartuz”

Kokapena: Lantziego, Guardia, Bastida, Kanpezu, Maeztu, Añanako Harana eta Trebiñuko Konderrria

Emandako dirulaguntza: 7.470,21€

Proiektuaren laburpena

Proiektu honetan zenbait ekintza gauzatzen dira, kulturarteko bizikidetza indartzeko, bai ikastetxeetan (Lantziego eta Guardiako ikastoletan), bai erkidegoan, kulturarteko bizikidetza ona lortzeko, politikari, teknikari eta gizarte eragileekin adostuta.

Erakundea: CEAR EUSKADI

Proiektua: “Zabaltzea “Sute kontrako gida: herritarrek eta kazetariak tresnak eskuratzen dituzte diskurtso iraingarri xenofoboak eta gorroto diskurtsoak aurre egiteko””

Kokapena: EAE

Emandako dirulaguntza: 7.998,80 €

Proiektuaren laburpena

Proiektu hau 2017 urtean egindakoaren jarraipena da. Hor, gero eta ohikoagoak diren diskurtso xenofoboak aurrean jokatzen 19 tresna jasotzen zituen gida bat egin zen. 2018ko deialdian, proiektuaren helburua gida hori zabaltzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste plataformak eta elkarte batzuetako zurrumurruek aurkako sareetan parte hartzen duten herritarrei eta kazetariak helarazteko, irudiz hornitutako koaderno batekin batera. Horrela, hitzaldiak antolatu ziren Arabako eta Bizkaiko Suhiltzaileen Parkeetan eta Kazetaritza Fakultateetan.

Erakundea: EGIBIDE

Proiektua: “Boluntario gazteak Bilatuz- Afro”

Kokapena: Gasteiz.

Emandako dirulaguntza: 5.477,32€

Proiektuaren laburpena

Proiektu honetan 16 urteko edo hortik gorako Egibideko ikasleek beren esperientziak azaltzen dizkiete gizarte arloko beste erakundeei, begiraleekin, aisialdiko jardueretan, kulturarteko bizikidetzan eta gizarte justizian hezteko helburuarekin.

Erakundea: Entretanto entretente/Bitartean jolasean elkarteak

Proiektua: “Komunitatean esku hartzea kulturarteko elkarbizitza eremuak sortu eta dinamizatzeko”

Kokapena: Oion

Emandako dirulaguntza: 10.000,00 €

Proiektuaren laburpena

Oionen egiten den kulturarteko erkidegoko esku hartze proiektua da. Hauek dira helburuak: gizarte partaidetzako prozesuak indartzea; erkidegoaren garapena bultzatzea eta handik hurbil dauden beste erakundeekin sinergiak sortzea, erkidegoaren trebakuntza eta indartzea bilatuz, bere kabuz kudeatzea lor dezan.

Horrez gain, zurrumurruen aurkako estrategia garatzen jarraituko da, immigrazioari buruzko zurrumuru ea estereotipo negatiboen ugaritzeari aurre egiteko. Horrela, jatorri desberdineko auzokoak hurbiltzea eta harreman partekatuak bizikidetzaren harreman bihurtzeko ekintzak sustatzea lortuko da.

Erakundea: ADRA FUNDAZIOA

Proiektua: “Antzerkiarekin biziz II”

Kokapena: Zigoitia, Vitoria-Gasteiz, Añana .

Emandako dirulaguntza: 5.489,00€

Proiektuaren laburpena

Proiektuaren xedea da bizikidetzaren, antzerkiaren bitartez errespetua eta kulturartekotasuna jorratzeko gaitasunak, jarrerak eta ohiturak garatzea, hau da, antzerkia komunikazio tresna eta emozioak kanalizatzeko ibilgailu gisa erabiltzea.

Horretarako, kulturalki jatorri ezberdinekoak diren pertsonen talde bat sortuko da, eta lantegiak egingo dituzte estereotipoak eta zurrumurruek desmuntatzeko eta aurreiritziekin amaitzeko hainbat alderdi lantzeko.

Proiektua amaitzeko, lantegietan sortzen diren lanen antzezpena egingo da.

Erakundea: FONDO FORMACIÓN FUNDAZIOA

Proiektua: “Elkarbizitzarako ipuinak, cuentos para convivir”

Kokapena: Laudio, Amurrio, Artziniega.

Emandako dirulaguntza: 6.396,12 €

Proiektuaren laburpena

Irakurketa tailerrak egiteaz gain, kulturarteko bizikidetzaren inguruko eskulanak egiten dira Laudio, Amurrio eta Artziniegako liburutegietan.

Erakundea: HARRESIAK APURTUZ

Proiektua: “Arabarren artean ezagutza eta kontzientzia kritikoa sustatzea, lurraldean bizi diren eta maila pertsonalean eta profesionalean garatzen diren etorkinen errealitate normalizatu, positibo eta egonkorra erakusten duten irudien bitartez”.

Kokapena: EAE

Emandako dirulaguntza: 5.734,32 €

Proiektuaren laburpena

Proiektu honetan, argazki erreportaje bat egin da, ALHn bizi diren eta pertsonalki eta profesionalki garatzen diren etorkinen errealitate normalizatu, positibo eta egonkorra erakusteko.

Irudiak **Harresiak Info** blogeko irudien funtsean sartuko dira, eta edozein pertsonaren garapenean eragina duten berariazko gaietan oinarrituta egongo dira, hala nola osasunerako sarbidea, aisialdia, prestakuntza, lana...

Erakundea: Izeki elkarte

Proiektua: “Kulturarteko sentsibilizaziorako programa. Desberdinak izanik denok gara berdinak”

Kokapena: Oion, Bastida eta Lapuebla de Labarca.

Emandako dirulaguntza: 7.937,35 €

Proiektuaren laburpena

Hezkuntza proiektua, lantegiak eta tutoretza eta jolas jarduerak (jokoak, lantegi dinamikoak, etab.) egitean datzana. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua, gizarteratze jarduerak sustatzeko eta gizarte injustiziak eta intolerantzia bultzatzen dituzten jokabideak desagerrarazteko helburu argiaz, aniztasunaren diskurtso baikor batetik abiatuta, ikaskuntza, elkartruke eta hazkunde elementu gisa.

Erakundea: KUENTAME ELKARTEA

Proiektua: “Eraikitze onartu egin behar da: kulturarteko elkarbizitza ”

Kokapena: Vitoria-Gasteiz, Legutio eta Murgia .

Emandako dirulaguntza: 6.963,88 €

Proiektuaren laburpena:

Jarduera programa da, eta helburua aniztasunaren inguruko topaketa eremuak sortzea da, estrategiak eraikitzea bultzatuz, jarrera xenofobo eta arrazistak saihesteko, komunikazio aktibo eta eraginkorra sustatzen dutenak, genero ikuspegitik, eta errespetua eta kulturarteko bizikidetzaren sustatuz.

Horretarako, askotariko tailerrak, zinema forum, mahai-inguruak eta emakumeen ikuspegitik kulturarteko bizikidetzari buruz gogoeta egiteko jardunaldiak garatuko dira.

Erakundea: EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN ELKARTEA**Proiektua: “KULTURA ANIZTASUNAREN II. AZOKA”**

Kokapena: Vitoria-Gasteiz.

Emandako dirulaguntza: 4.851,89 €

Proiektuaren laburpena

Proiektu honetan Kultura aniztasunaren II. Azoka egiten da. Herritar guztientzat da eta emakume elkarte batek zuzentzen du. Kulturarteko bizikidetzaren eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloetan aritzen diren 30 erakunde inguruk koordinatzen dute.

Azoka diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuan lan ildoak adostea espero da, pertsona guztientzako aukera berdintasunean aurrera jarraitzeko, eta bereziki emakume etorkinen desberdintasuna erakusteko. Erakunde bakoitzak bere standak izango ditu, eta jolas eta musika jardueraz gain, ipuin kontalariak, poesia irakurketak eta bestelakoak ere izango dira.

Erakundea: Pikor kultur elkarte**Proiektua: “Antzerkia, topaketarako eta kultura anitzeko bizikidetzarako”**

Kokapena: Maeztu

Emandako dirulaguntza: 6.864,00 €

Proiektuaren laburpena

Proiektu honen aurretik Esku hartze antzerkiaren tailerra egin zen Maeztun, Arabako zurrumurruren aurkako estrategiaren barruko jarduera bat gisa. Arrakasta izan zuenez, eta eragile taldea dagoeneko sortuta zegoenez, asmo handiagoko proiektu bat gisa aurkeztu da. Helburua da etorkinei buruzko zurrumurruek eta aurreiritzi xenofoboak zabaltzearekin amaitzea, antzerki ikaskuntzaren bidez.

Erakundea: NAZIOARTEKO ELKARTASUNA**Proiektua: “Aniztasuna ikasten: Kulturarteko hezkuntza. VI. fasea”**

Kokapena: Oion.

Emandako dirulaguntza: 4.146,24€

Proiektuaren laburpena

Kultura arteko tailerrak eta kultura arteko komiki bat egin da Oiongo Ramiro de Maeztu HHLHIn. Gero, sentsibilizazio kanpaina egin da.

Erakundea: ZUBIA GURUTZATZEN ELKARTEA

Proiektua: “Baratzezaintzartekotasuna”

Kokapena: Abetxuko

Emandako dirulaguntza: 8.000,00€

Proiektuaren laburpena

Nekazaritza ekologikoko tailerra da, eta hor, hainbat kulturetatik etorritako pertsonak ezagutzak, hizkuntzak eta lan egiteko moduak trukatzeko dituzte, ezagutzak elkarri emateko aukera emanez. Horrela, topatzeko eta harremanetan jartzeko berezko eremuak sortzen dira, baztertze, arrazismo eta xenofobia jarrerak prebenitzeko eta horiek aurre egiteko. Bestalde, aromaterapia tailer bat egingo da, eta kremak, olioak eta bestelakoak prestatuko dira. Landareek sendatzeko duten ahalmena aztertuko da, zenbait kulturetan oinarrituz. Proiektuan zehar, argazki erakusketak egingo dira hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin lankidetzan, eta kulturak elkartzeko hitzaldiak eta jarduerak ere antolatuko dira.